

NAFARROA IKUSTEN BILDUMA

1. Iruñeko Udalaren aurrealdea

Sarrera

Garai batean Frutaren plaza deitzen zen horretan –gaur egungo Udaletxe plaza–, Karlos III.ena Prestua erregeak Iruña hiriari batasuna emanen zion eraikin bat eraiki zuen 1423an. Hiria, ordura arte, hiru eremutan banatua zegoen: bertako biztanleek osatzen zuten eremua, Navarrerria, eta bi burgo, San Zernin eta San Nikolas, frantses jatorriko biztanleek osatua. Eraikin hori Iruñeko Udaletxea da, hain zuzen ere.

Baina XVIII. mendearen erdialdean, Udal eraikin zaharrean somatzen hasia zen denbora ez zela alferrik igarotzen, eta Udaletxe berria eraikitzea erabaki zuten. Eraikin berriari buru emateko, José de Zay y Lordak diseinatutako fatxada estetiko eta aberats bat egin nahi izan zuten, Iruña hiriari ospea eta distira emanen ziona. Fatxada hori gaur egungo Udaletxean ikusten ahal dugun hori bera da.

Deskribapena

Fatxada, plazaren atzealdean ageri zaiguna, angeluzuzena da, eta estilo barrokoa du nagusi. Fatxadak dituen apaindurak eta forma arkitektonikoa direla-eta, jende askok goitik behera zizelkatutako horma-erloju batekin konparatu du.

Portadak hiru solairu horizontal ditu, eta teilatupe bat. Horretaz gain, bertikalki, hiru kaletan banatzen da. Kale horiek estilo klasikoetako zutabe bikoitzak banatzen dituzte. Hortaz, gure aurrean agertzen den eraikin horrek harri grisez egindako tiraderadun altzari baten antza hartzen du.

Eraikinaren oinarriari doriar estiloko zutabe bikoitzek ematen diote buru. Estilo klasiko guztien artean doriar estiloko horiek dira sendo eta mardulenak, eta, kasu honetan, basamentu batean bermatuta daude. Beheko solairuaren erdian, sarrerako atea dago, erdi puntuko arku batek irekitzen duena, eta, horren gainean, honako idazki hau, latinez: “Atea guztiontzat dago irekita, baina, batik bat, bihotza”. Albo banatan, idulkien gainean, emakumezkoen bi irudi daude. Eskuineko aldean, jarrera heroikoan, Jeanne d’Arc bailitzan, Justiziaren alegoria dugu. Horrek, esku batean ezpata bat hartuta, balantzari eusten dio ezkerreko eskuan. Ilea haizearen eraginez mugitzen zaio, eta, kasualitatez, ez ditu begiak estalita; aurrera begira ageri da, harro. Bitxikeria gisa esan daiteke, segurtasun arrazoiak direla medio, ezpataren orriak punta moztua duela, 2008an zaharberritu zutenetik.

Ezker aldean, eta sarrerako atearen albo batean, Zuhurtzia dugu. Ondoan duen irudiak baino itxura lasaiagoa du, eta, hein batean, oihal bustizko tunikak janzten zituzten eta ilea harmoniaz biltzen zuten greziar musa horiek gogorarazten ditu. Ezkerreko eskuan urre-koloreko ispilu bat dauka, eta eskuinekoan, suge bat, kiribilduta, Bibliako esaldi hori gogora ekarriz edo: “Izan zaitezte sugeak bezain zuhur eta usoak bezain xalo”.

Bi alegoriek udal gobernauak oinarri izan behar dituen bertuteak irudikatzen dituzte. Idulkietan, marmol zuriko xafletan, Iruñeak itsasoarekiko duen maila ikus daiteke, Santander eta Alakant oinarri hartuta, hau da, 443 eta 444 metro.

Beheko solairuko alde banatan, doriar estiloko zutabeen artean, egurrezko bi ate daude, eta, ate horiei buru ematen, burdin hesiez estalitako bi lehio ageri dira. Burdin hesi horiek eta ate nagusikoak estilo zakarragoa dute, tokiko forjaketan ohikoa den moduan.

Erdiko solairuan, marmolez egindako barnealde handiosa dela-eta oin nagusi izena ere hartzen duen horretan, bereziki deigarria da alde batetik besteraino ageri den balkoi korritua. Bertan, estilo frantsestuko burdin sare bat dago, besteak baino landuagoa eta berdez pintatua. Balkoi korrituaren erdian eta aldeetan bi lehoi urreztatu ageri dira, hiriaren armarrria babesten. Urtero, San Fermin garaian, geranio gorriak jartzen dituzte balkoia apaintzeko, bertako erliebeak estaliz.

Hiru balkoi kanpoalderantz ageri dira, eta balkoi horiek, apaindura aberatseko moldurak dituzte, estilo barroko betean. Erdikoa nabarmentzen da besteen artean, motibo begetal eta geometrikoekin.

Solairu honetan joniari ordena da nagusi. Bertako zutabe bikoitzak lerdengoak dira, eta kapitelen buruetan bolutak ageri dira, oin nagusiari itxura klasiko eta dotoreagoa emanez.

Lehenengo solairua, beraz, sendoena dugu, bigarrena, oin nagusia, eta azkenik, azkeneko solairua alaiena eta ezagunena dela esan genezake. Izan ere, solairu horrek guztion arreta bereganatzen du uztailaren 6an, eguerdiko 12:00etan. Solairu horretan banako hiru balkoi daude, erdiko solairukoak duen estilo frantsestuko burdin sare berarekin apainduak. Fatxadako balkoi horiek kanpoaldera ireki egiten dira erdiko balkoitik jaurtitzen den Txupinazoa ikusteko. Balkoi horren gainean, mugimenduan, lau bandera izaten dira: Iruñeko bandera berdea, Espainiako hori-gorria, Nafarroakoa, gorri distiratsuan, eta eskuin aldean, urdin bizian, Europakoa.

Solairu honetan korintiar ordena da nagusi. Zutabeak ildaskatuak daude, eta laburxeagoak dira. Horrek ematen dio solairu honi itxura arinagoa.

Teilatupea fatxada osoari buru ematen dion solairua da, eta estilo neoklasikotik hurbilago dago. Greziar tenplu bat gogorarazten du: erdiko partean, buru emanez, tinpano bat, eta aldeetan, kurbadura arin bat. Harrizko balaustrada batek alderik alde zeharkatzen du solairu osoa, eta, aldeetan, boluta eta oinarrien gainean, Herkulesen bi irudi ageri dira. Irudiok kanpora begira daude, gorputza Udaletxea zaintzeko jarreran. Harrizko irudi horiek bizar lodiko eta ile izurtuko bi gizon gihartsu irudikatzen dituzte. Soinean oihal batzuk baino ez daramate, esku batekin eutsita, haizearekin mugimenduan. Beste eskuan bastoi bana dute, sorbaldaren gainean bermatuta.

Tinpanoaren erdian, erdiko kalean, burdinezko orratzak dituen esfera batek ordua ematen digu, unean unean, tinpanoaren gainean dauden ezkilek lagunduta.

Tinpanoaren gainean, alde banatan, bi lehoi errestari daude, bi armarriri eusten. Ezkerreko aldean, Nafarroako armarrria ageri da, gorri eta urre koloreetan. Bertan, Antso Azkarrak, 1512. urtean Navas de Tolosako borrokan Miramamolin mairuaren dendan apurtu zituen kateak irudikatuta daude. Eskuineko aldean, kolore urdinaren gainean eta lehoi ibilkari urreztatu baten gainean, Karlos III.a Prestuak Iruñeari hiria bateratzeko helburuz eman zion armarrria dago. Lehoia zen, zalantzarik gabe, errege horren animalia kuttuna. Izan ere, diotenez, hainbat lehoi omen zituen, bizirik, Erriberriko gazteluan. Hain zuzen ere, erregearen lehoi kuttunena, Marzot, erregeak egiteko eskatzen zuen gauza guztietan ageri da; hori da, behintzat, kondairek diotena.

Fatxadaren gailurrean, Udaletxeari buru emanez, irudi femenino bat ageri da. Irudiak gona bat darama jantzirik, belaunen gainean jasota, eta, buruaren gainean, erramuzko koroa bat. Eskuineko eskuarekin urre koloreko korneta bat jotzen du. Ospea da, ezkerreko eskua gerrian bermatzen du, zoli antzean, eta zangoetako bat aurrerantz dauka, une batetik bestera pregoi bat ematen hasiko balitz bezala.

Gogoeta

Ez da harritzekoa, beraz, hala Udal plaza nola Udaletxearen eraikin bera ere topaketa gune bilakatu izana. Bertan, turistek argazkiak egiten dituzte, eta Iruñeko alderik adieragarrienari so egiten diote, bertako biztanleak harrizko kaleetan barna harro asko ibiltzen diren bitartean.

Gure entzierro ospetsuak ere plaza hau dauka eszenatoki, bertan ibiltzen baitira zezenak Santo Domingo aldapa utzi eta Mercaderes kalera abiatzen direnean.

Eta mihi gaiztoek telebistan handiagoa dela esaten badute ere, zalantzarik gabe esan dezakegu plazak 2.000 metro koadrotan 12.000 pertsona hartzeko gaitasuna duela, zeinek zapia eskuan eta Gora San Fermin deiadar eginez hankaz gora jartzen baitute.

Bibliografia

- Andueza Unanua, Pilar "La arquitectura señorial de Pamplona en el siglo XVIII. Familias, urbanismo y ciudad. Pamplona, Gobierno de Navarra. Departamento de Cultura y Turismo. Institución Príncipe de Viana, 2004.
- Molins Mugueta, J.L. " Casa consistorial de Pamplona" Ayuntamiento, 1955.

Kredituak

Argitalpena: Accesibilidad Universal.

Babesleak: Iruñeko Udala eta Nafarroako Gobernua.

Sustatzailea: Retina Navarra elkarte

Testua: Idoia Albeniz Marino

Musika: Aurelio Sagaseta

Bakarlaria: Raul del Toro

Argazkiak: Emilio Balsera.

Maketazioa: Marcela Vega Higuera

Grabaketa: Arion Estudio de Sonido

Lokuzioa: Alex Ruiz Pastor

Zeinu-Mintzairaren interpretea: Magda de Arriba- Asorna